



## GFI Norte-k ezegonkortzen du (III. zatia)

*Dirua babesetan gastatzen da eta, bien bitartean, langileei hitzarmen bakoitzeko txarrena ezartzen zaie soldatak izozteko, antzinatasuna absortzebako eta abar.*

**Prekarizazioa edota lan-prekarizazioa**, lan-merkatuan eta enplegu, azpienplegu eta langabezien baldintzei dagokienez, langileen gizarte eta baldintza ekonomikoetan segurtasun eta berme faltan datza, langileei eta euren gizarte eta familiako esparruan eragiten diena.

WIKIPEDIA <http://es.wikipedia.org/wiki/Prekarización>

GFI Norte-k, gure kostara, etekin handiagoak lortzeko erabiltzen dituen amarru eta trikimailuak salatzen darraigu, **12**garren eta **22**garren aleetako artikuluei jarraipena emanez.

Oraingo honetan, gure hitzarmen probintzialaren gainbeheratzea, langileen pasibotasuna eta hitzarmenen negoziaketen (bai probintziala eta baita estatukoa ere) enkistamendu egoera erabiliz, GFI Norte-k hitzarmen desberdineko artikulua erabiltzen ditu bere onurako eta ekonomikoki komeni zaion moduan.

Gogora dezagun, joan den **2013ko Abenduaren 13an**, enpresak jakinarazi zigun **estatuko hitzarmenera pasatzen ginela** baina, oraingoz, lanaldia eta soldata mantenduko zuela. Hala ere:

- Edoskitze metaketa. Amatasunetik bueltatzen diren amei estatuko hitzarmena aplikatzen zaie beraien bueltatzeko data kalkulatzeko, hau da, lehenago bueltatu behar dira.
- Ordu estrak hitzarmen probintzialaren arabera ordaintzen dira (1x1 eta ez 1x1,75), hau da, gutxiago ordaintzen dira.
- Kontratu berriak estatuko hitzarmeneko kategoriekin egiten ari dira eta oinarrizko soldatak baxuagoak dira.

**Babesentzat badago dirua eta, bitartean, GFI Norte-ko langileok, 2 urtez, soldata izoztuta eta antzinatasuna absortzebatuta daramagu.** Gogoratu behar da, "Hitzarmenaren kontura" kontzeptua langileei, hitzarmena ez egotean, soldata igotzeko da eta ez urteko igoerak absortzebatzeko eta hauxe da babesetan hain euskalduna eta hitzarmenetan hain estatukoa den enpresa honetan gertatzen dena.

## 2014ko Apirilako inkestaren emaitzak

Apirilan egin genuen inkestan parte hartu duzuen langile guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu eta inkesta horretatik honako ondorioak atera ditugu:

- Parte-hartzaileen artean gehiengoak **hitzarmen probintzial bat nahiago du**, enpresa hitzarmen baten aurretik eta, bukatzeko, estatuko hitzarmen baten aurretik.
- Parte-hartzaileek Bizkaiko hitzarmenaren defentsan konpromiso handia azaldu dute, baina konpromiso hau izan diren manifestaldietan eta kontzentrazioetan ez da ikusi.
- Enpresako batzordea eta ELA sindikatu ataleko itxura ona da, halere hobetu daitekeena, baina **langileek enpresarekiko ez dute konfidantzarik**.
- Egin dituzuen iruzkinak eta iradokizunak oso baliogarriak izan dira gure komunikatuak zelan bideratu behar ditugun eta informazioa zelan jakinarazi behar dizuegun jakiteko.
- Zenbait iruzkinetan aipatzen den "sindikatuaren arteko borroka"-ri buruz, esan behar da sindikatu desberdinak direla, hain zuzen ere, eredu sindikal desberdinak eta langileen eskubideak defendatzeko ikuspegi desberdinak direlako eta sindikatu bakoitzak bere eredia defendatu behar du gainerakoen aurrean.
- Beste sindikatuei egiten dizkiegun kritikak pasadizokoak direla uste dugu langile guztiei bidaltzen diegun informazio kopurua kontuan izanda eta gure komunikatuak aztertu nahi duen edozein lankidek hortaz ohartuko da: gure kritikak enpresari, patronalari, gobernuei, ... askoz ugari eta handiagoak dira. Baina erabaki dugu lankide guztiei bidaltzen diegun komunikatuetan beste sindikatuei kritikak ez egitea, ahal dugun neurrian, behintzat, baina **sare sozialak erabiliko ditugu** (nahi duenak jarraitzen gaituen) **gure eredu sindikala defendatzeko**, partekatzen ez ditugun beste batzuen aurrean.

## FACEBOOK-en argitaratzen duguna

- 2014/05/29** "... familiekin bilketaren %91 suposatzen dute; bien bitartean, enpresa handiek bakarrik %2a ..."
- 2014/05/27** Lehendabiziko urteurrena Bizkaiko informatikarien manifestazioa egin zenetik. GFI Norte-ko ELA han egon zen ADETIK-ekin.
- 2014/05/23** GFI Norte-ko CCOOeko komunikatuari erantzuna.
- 2014/05/22** Confebask-ek hankaz gora jartzen du negoziazio sektoriala. Patronalaren benetazko ordezkatzeari zalantza jartzen da.
- 2014/05/12** CEBEK-eko urteroko batzarra Euskaldunan. GFI Norte-ko ELA han izan zen, negoziaketa eta hitzarmen duinen sinadura eskatzen.
- 2014/05/09** GFI Norte-ko USOkomunikatuari erantzuna.
- 2014/05/05** Panda Security-ko garaipen kolektiboa: antzinatasuna ezin izango da absortzeatu.
- 2014/05/05** Arrisku Laboralen aurkako Prebentzioko Legea ez betetzeagatik Axpe Consulting zigortuta izan da.
- 2014/04/30** Kaleratze berriak Bilboko Atos-en. Bitartean, Atos-en matrizea Bull erosten du 620 milioi eurotan.

